


LAN KOADERNOA

LEHEN MAILAKO HEZKUNTZAKO

3. ZIKLOA

Bakearen aldeko **GARRASI BAT**

Isabel Planas
Maru Escobedo
Raül Jiménez



LAN KOADERNOA

LEHEN MAILAKO
HEZKUNTZA ZIKLOA



Bakearen aldeko
garrasi bat

Sortaren zuzendaritza: Eva Quintana
Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Autoretzaren koordinazioa: Raquel León
Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Argazkiak: Gervasio Sánchez, INTERMÓN OXFAM-en agiritegia
Azalaren diseinua: Javier Valmaseda
Barrukoak: Lluís Torres

Koaderno honetako jarduerak “Gaur egungo munduko gatazkak” izeneko gaia ikasi duten ikasleek egin dituzte, UB (Universidad de Barcelona) unibertsitateko Irakasleen Formakuntzarako Fakultatean. Lan hau Anna Bastida Gaur egungo Historian Doktore eta Gizarte Zientzien Didaktikako irakasleak zuzendu du.

1. argitaldia: 2001eko uztaila

© Autoretza: Isabel Planas, Maru Escobedo, Raül Jiménez

© Apaingarriak: Àngel Sauret, Joana Demestre

© INTERMÓN OXFAM

Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona

Tel 93 482 07 00. Faxe 93 482 07 07. E-mail: intermon@intermon.org

ISBN: 84-8452-079-X

Lege-gordailua: B. 33.681-2001

Inprimaketa: Hurope s.l.
Espainian inprimatua

“Copyrightaren” titularren baimenik gabe, erabat debakaturik dago obra hau ugaltzea, osorik edo partzialki, ezein modu edo prozeduraren bidez.

Klororik gabeko paperean inprimatua.

AURKIBIDEA

- 1 ABIAPUNTUA
- 2 EDALONTZIEN ARTEKO GERRA
- 3 ZER EROSIKO ZENUKE ARMA BATEN PREZIOAN?
- 4 BIHOTZ GOGORTUA, HILTZAILE
- 5 KOLORETAN
- 6 ¡KAZETARI GARA!
- 7 LARUNBATEKO PARTIDA
- 8 SOFÍA ALFACE
- 9 EZAGUT DEZAGUN MOZAMBIKE
- 10 BI AHUNTZEN ISTORIAO
- 11 ARMEN ORDEZ, ETORKIZUNA
- 12 NORK KENDUKO DITU MINAK MOZAMBIKETIK?
- 13 TXOMIN ENEAKO BARATZEA
- 14 ZER IKASI DUGU?



Idatzi



Irudi-
bilduma



Marraztu



Pentsatu



Liburu
erraldoia


1

ABIAPUNTUA

Kaixo! Sofia dut izena, eta Mozambiken bizi naiz, Afrikan, alegia. Handia egiten naizenean, jostuna izan nahi dut, atsegin dut jostea eta soinekoak egitea, baina, bitartean, eskolara joan beharra daukat, prestatzeko. Gaur ondorengo proba egin digute. Nola erantzungo zenuke zuk.



Zure ustez zuzena den erantzunaren aldamenean, X bat ezarri.



Zer da bakea?	☐ Nobel izeneko saria	☐ Nire lagunaren izena	☐ Norbere buruarekiko eta gainerakoekiko armonia, konkordia
Zer da gerra?	☐ Arazoak konpontzeko biderik onena	☐ Bi nazio edo partiduen arteko borroka armatua	☐ Egoera saihestezina
Zer da gatazka?	☐ Fruta-mota bat, oso gozoa	☐ Ez gaude ados, baina modu askotara konpon daiteke	☐ Gerra aipatzeko beste modu bat
Armak al dira gerraren erantzuleak?	☐ Bai, armarik ez balego, ez litzateke gerrarik izango	☐ Ez, pertsonak dira erantzuleak	☐ Batzuetan armak dira erantzuleak, baina beste batzuetan ez.
Gerra-hegazkin baten prezioa, haxe izan daiteke...	☐ 350 bat euro	☐ 35.000 bat euro	☐ 23.529.000 bat euro
Pertsonen aurkako mina batek balio du...	☐ 1,5 euro	☐ 15 bat euro	☐ 159 bat euro
Zer gatazka edo gerra ezagutzen dituzu, gaur egun?			
Ezagutzen al duzu Mozambikeko gatazka?	☐ Bai, ezagutzen dut	☐ Ez	☐ Badut entzutea
Ondorengo honen-gatik borrokatzen da Mozambiken...	☐ Petrolioaren monopolioa lortzeko	☐ Herria egituratzeko, han oso gerra zibil gordina izan baita	☐ Europatik independente izan nahi dute
Beste sufrimendu-iturri batzuk...	☐ Uholdeen ondorioak	☐ Fabrikek eta autoek eragindako kutsadura handia	☐ Sumendiek sorturiko arriskua

2

EDALONTZIEN ARTEKO GERRA

Taldeka baturik, dorrerik altuena eraiki behar duzue kolore bereko edalontziak erabiliz.

Baina, kontuz gero! Ematen zaizkizuen oharrei jarraitu!



Zein emaitza lortu dira?

Positiboa izan al da emaitza? Zergatik?

Zein izan da zure taldearen heburua?



Zer harreman egon da talde bakoitzaren helburu eta gatazka konpotzeko moduaren artean?

Joko hau ba al dago erlazionatzerik inguruko munduan dagoen gatazkaren batekin?

ZER EROSIKO ZENUKE ARMA BATEN PREZIOAN?


Zer eros zenezake arma hauen prezioan?
Argazkiren bat edo beste aurkitzen baduzu,
itsatsi laukian bertan.



Pertsonen kontrako mina
Prezioa: 1,5 euro



F-5 hegazkina
Prezioa: 34.918.000 bat euro



Kalashnikov
Prezioa: 210 bat euro



Zer erosiko zenuke zuk?




Gerra, arma arin eta borrokalariei dagozkien 3 arazo konpondu behar dituzu.


1. Yemengo Errepublikak beste ezein herrik baino arma gehiago dauzka biztanleko. 50 milioi arma eta 16 milioi pertsonako populazioa badauka, ¿zenbat arma dagozkio biztanle bakoitzari? Espainiak 3 milioi arma dauzka eta 40 milioi pertsonako populazioa. Zenbat arma dagozkio biztanle bakoitzari?



2. Gaur egun, 300.000 mutiko eta neskato daude munduan gerra egiten. Futbol-zelai batean 98.000 ikusle sartzen badira, zenbat futbol-zelai behar dira haur hauek sartzeko? Galde egin ezazue zenbat hurrek duten eskola, eta kalkulatu zurea bezalako zenbat eskola behar diren haur hauek sartzeko.



3. Ferrari markako auto batek 150.250 bat euro balio badu, eta Espainian urtean 86.111.000 bat euro irabazten badira armak salduz, zenbat Ferrari eros litzake Espainiak?




BIHOTZ GOGORTUA, HILTZAILE

Eskolan, *Full metal jacket* liburua irakurri dugu, eta esaldi batek asko harritu nau.

Ondorengo hauxe da::

“Borrokaldi batetik bizirik irten nahi baduzue, zuek daukazuen hiltzeko sena kontrola dezazuen nahi du sarjentuak. Gure fusila tresna hutsa da, bihotz gogortua da hiltzailea.”

Gustav Hasford, Full metal jacket



Full metal jacket liburuko irakurgai honetan oinarri hartuz, egin marrazki bat, eta, gero, zure ustez esan nahi duena azaldu.





Munduan gerra eta gatazka garrantzitsu asko daude. Begiratu irudi-sortako mapa, eta, atlas bat lagun, bete itzazue ondorengo lauki hauek:

Gerran edo gatazkatan dauden herriak

Negoiazio-fasean dauden herriak



Ba al zenekiten munduan hainbeste gatazka eta gerra zeudenik?

Harrituta al zaudete hori jakitean? Zergatik?

6

KAZETARI GARA!

Izan nahi al duzue kazetari egun batzuetan zehar? Kazetari baten lana oso konplexua da, hots, gure inguruan gertatzen diren gertakariei buruzko informazio asko biltzean datza. Bila ezazue gatazka armatu bati buruzko albiste bat: kazetetan, aldizkarietan, telebistan, iraratian. Jasotako informazioaz, bete beheko laukia; hementxe daukazue adibide bat.



2000ko abenduaren 10a. *La Vanguardia*

	ADIBIDEA	OSATU IRRATI
TB edo egunkariaren izena...	<i>La Vanguardia</i>	
Gatazka edo gerraren tokia	Angola	
Albistearen titulua	Diamanteen gerra	
Bakea edo hobekuntza al da albiste horren mamia?	Ez	
Ez Albistearen data	2000/12/10	
Albiste (idea nagusia)	Angolak petrolio eta diamante ugari ditu. Gerra ondoren, errefuxiatuen eremutan bizi dira. Premia gorrian bizi dira.	

7

LARUNBATEKO PARTIDA

Zer egingo zenukete ondorengo egoeran bazeundete?

Larunbat arratsaldean, zuen gelako mutiko eta neskatoak futbolean ari dira eskualdeko liga mistoan. Ohiz, gelako lagun guztiak joaten zarete partida ikustera. Larunbat honetan, sailkapeneko lehen postuan dagoen taldearen kontra jokatu behar duzue, eta inoiz ez zarete elkarrekin ondo konpondu. Aurkariaren zelaian jokatu behar duzue. Partida amaitu da, eta zuen taldeak galdu egin du. Zelaitik kanpora, beste taldearen zale batzuekin egin duzue topo, eta honelaxe esan dizute: "Zuen taldeak merezita dauka galtzea, ligako talderik txarrena baita!" Zuek...



Jarraitu zuek kontatzen.



Zein da egunero ditugun gatazkak konpontzeko biderik onena?





Deskriba ezazu Sofiaren eguneroko bizitza. Gero, zure bizitza. Zertan dira berdinak zurea eta harena?

Sofía Alface,

14 urteko neskato honek begiak itxi eta aurrera bultzatu du zango bat. Berriro ibiltzen ikasten ari da, bigarren aldiz. Protesi ortopediko eta metalikoa dauka zango banatan. Mina batek txikitu egin zizkion bi zangoak 1993ko otsailan, etxe inguruan egur bila zebilela. 10 urte zeuzkan. Haren ahizpa Maria, 8 urtekoa, bertan hil zen.

Sofia gurasoekin eta bost anaia-arrebekin bizi da, Boanen, Mozambikeko hiriburu Maputotik 40 kilometrora. Baserritar familiako kidea da, eta lur-zati txiki bat lantzen dute. Komunitateko eskolara joaten da egunero. Sofia oso jostun ona bihurtu da. Bere gela txukunaren erdi-erdian, josteko makina dauka. Eskolako lanak amaitu ondoren, bere jantziak eta anaia-arrebenak josten ditu. Anita ahizpa nagusiarekin oso harreman berezia dauka. Handia egiten denean, Sofiak bere kabuz bizi eta jostun profesionala izan nahi du. Beste gogo bat ere badu Sofiak, Mozambiken dauden mina guztiak desagertzea, jende guztia hango lurretan barrena lasai ibil dadin.

Iturria: *Vidas Minadas*, Gervasio Sánchez



Zure ustez, zergatik dio berriro ikasi behar duela ibiltzen?

EZAGUT DEZAGUN MOZAMBIKE



Zein kontinentetan dago
Mozambique?

Zeintzuk dira Mozambiqueko
baliabide naturalak?

Mozambique oso herri handia da, Afrikako hegoekialdean kokaturik dagoena. Urtaro lehorrean, bero egiten du, eta urtaro ezean, euria, batez ere barnealdean. Hogeita bost ibaiek gurutzatzen dute Mozambique, eta horietatik handiena Zanbezi ibaia da. Ibaia hauetan krokodiloak daude. Mendirik handiena Binga izenekoa da, eta 2.438 metroko altuera du. Mozambiquek oso kosta luzea du. Porturik garrantzitsuenak Beira eta Maputokoak dira.

Animalia- eta landare-espezie asko daude Mozambiken: elefanteak, errinozeroak, krokodiloak, kobrak, hipopotamoak eta hegazti-zein tximnino-mota aunitz. Frutarbolak ere ugariak dira Mozambiken: mangoak, bananoak, papaiondoak, ananondoak, txirimoiak eta kokondoak. Mozambique baliabide mineral handiko herria da: diamanteak, urrea, burdina eta petrolioa edonon dago.



Azalera: 801.590 km²

Populazioan: 17.300.000 biztanle

Bizitzeko itxaropena, jaiotzeko orduan:
46,3 urte

Hiriburua:

Maputo (931.999 biztanle 1991ean)

Jarduera ekonomiko nagusia:
nekazaritza

Hizkuntza ofiziala: portugesa

Beste hizkuntza batzuk: swahilia, macoa-iomnea

Inguruko herrialdeak:

Tanzania, Malawi, Zambia, Zimbabwe,
Hegoafrika eta Swazilandia

Moneta: metikaia

Iturria: PNUD 98, The World Guide 97-98



Nola liteke, herri-lurrak hain aberatsak izanik, bertako jendea miseria gorrian bizi behar izatea?

Zein baldintzatan bizi dira Mozambikeko herritarrak?

Baliabide ugari eta aberatseko herria izan arren, hango jendea ez da baldintza onetan bizi. Mozambike munduko herririk pobreenetarikoa da. Hamabost urte iraun zuen gerra baten ondoren, hango ekoizpen-tasa oso urria da. Industriak birrindu egin zituzten, eta nekazaritza, errepideak, bideak eta burdinbidea ere bai; milaka mina lurperatu zituzten han-hemenka. Baina gerrak ezezik, noizik behin izaten diren uholdeek, batez ere azken garaiotakoek, erabat deseginik utzi dute Mozambike, eta populuak alde egin behar izan du, herritik kanpo atera, errefuxiatuen eremuetara joz edo kale-kantoian babestuz bizi ahal izateko. Bestalde, erabat nekazaritza galdu denez, oso nekez bizi dira herritarrak.





Diamante, urre eta petrolioaren salmentatik ateratako dirua erabilitzerik balu, asko hobetuko litzateke Mozambikeko egoera. Produktu hauen salmentatik ateratako diruak, ordea, ez du balio biztanleen bizimodua hobetzeko. Bertako zenbait jendeak armak erosteko erabiltzen baitu, eta, aldiz, ez da dirurik erabiltzen minak lurretik ateratzeko. Lurpean dauden minak eta jendeak dauzkan armak ez dira batere lagungarri egoera hobetzeko, alderantziz, segurtasun eza eta jendearen beldurra gero eta handiagoa da. Gogoan al daukazue Sofiari gertatutakoa?

1862 biztanletatik batek mutilaturik dauka gorputz-zatiren bat.

2 milioi mina daude lurpean landaturik.

Biktimetatik gehienak bertako herritarrak dira.

234.000 lagun errefuxiatu daude.


100 haurretatik 35ek dauka eskolara joateko aukera.

(Iturria: Mugarik gabeko Medikua)



Zein da Mozambikeko populuaren gaur egungo egoera?

Zer proposatuko zenukete jendeak bizi duen egoera konpontzeko?




Joana Demestre



Kontatuko al zenuke hor ageri den istorioa?

ARMEN ORDEZ, ETORKIZUNA



Sofia: Ba al dakizu gure herrian, armen ordeztuak oso baliagarriak diren produktuak ekartzeko proiektu bat gauzatzen ari dela?

Roberto: Sofia, zer esan nahi du horrek?

Sofia: Nire herria asko sufritzen ari da, 16 urtez bizi izandako gerra zibilaren ondorio larriengatik.

Gizona: Bai, eta Erromako Bake Akordio Orokorraz bukatu zen 1992an

Roberto: Bukatu al zen gerra?

Sofia: Bai. Baina bake-prozesuari hasiera eman zitzaion arren, FRELIMO eta RENAMO taldeetako armadek susmo txarrak zeuzkaten, eta honek arazo handiak ekarri zituen; beraz, arma asko gorde ziren leku ezkutuetan eta

azpibideetan. Bakoitzak bere arma ezkutatu zuen etxean, gerra berriro hasiko ote zen beldur!

INTERMON OXFAMeko Kristau Kontseiluak armen ordeztuak, guretzat baliagarriak izango diren produktuak aldatzeko proiektua proposatu du, gure herria birreraiki dezagun.

Gizona: Jakina! Arma bat ez da baliagarria bizirauteko: aldiz, aitzurrak etorkizuna lantzeko balio du!

Roberto:
Eta zertan datza proiektu hori?

Sofia: Armak produktu erabilgarrien truke aldatzen dira, adibidez, josteko makinen truke, zeinen bidez, jantziak egin daitezkeen, eta etxeak eraikitzeko edo lurra lantzeko tresneriaren truke. Berrirori hasi nahi dugu.

Antzeztu nahi al duzue Mozambike desarmatzeko proiektu hau?

NORK KENDUKO DITU MINAK MOZANBIKETIK?

KENTZEN DITUEN KENTZAILEA KENTZAILE ONA IZANGO DA!

Ba al dakizue zer den mina bat? Nire herriko egunkaririk ospetsuenean, Maputoko Egunkarian, alegia, hemen behean daukazu artikulu hau argitaratu dute, eta hor esaten da, oso gauza arriskutsuak direla minak, eta kalte handia egin digutela gutako askori. Nire herrian arazo larritzat dauzkagu mina hauek, eta askok haien ondorioak jasan behar ditugu...



NAZIOARTEKOAK

2000ko azaroaren 24a.

Zer da mina bat?

Lehergailuz betetako kutxa bat bezalakoa da mina, eta, zapaltzen denean, eztanda egiten du.

Zertaz eginak daude?

Metalezkoak (detektagarriak direnak), plastiko eta egurrezkoak (detektaezinak direnak).

LABURRAK

Zein neurritakoak dira minak? Kontserba-lata baten neurrikoak.

Zertarako erabiltzen dira minak? Etsaia zonalde batzuetan ez sartzeko erabiltzen dira; defenditu nahi diren lurraldeak isolatzeko. Baina erasorako ere erabiltzen dira: etsaiari min egiteko, helduak eta haurrak bereizi gabe.

Zenbat balio du mina batek? 250 pezetatik 30.000 pezeta bitartean.

Eta zenbat balio du mina bat desaktibatzeak? 35.000 pezetatik 120.000 pezeta bitartean.

Minen ondorioak: besoak eta zangoak galdutako pertsonak; hildakoak; landetan ez dago segurtasunik; ezin da bertan jolas egin, ez landatu, ez abereak eraman, ez ur edo egur bila joan; eta jendeak alde egin behar izaten du.

Mina-motak:

Karroen kontrako minak, ibilgailuak hondatu eta desagiteko prestatuak. Pertsonen kontrako minak, jendea zauritu eta hiltzeko prestatuak.

Zeintzuk ote dira konponbideak?

Minak kentzeko prozesua oso zaila da:

- Ez baitago jakiterik non dauden koka-tuta.

- Oso garestia eta arriskutsua da.
- Batzuetan, minak kentzen dituzten enpresa berberak dira minak egiten dituztenak.

- Kentzen diren minak baino gehiago egiten dira urtero.

Minak kentzeko modua EZ EGITEA eta EZ SALEROSTEA da. 1992an, mundu osoko zenbait GKEk nazioarteko kanpaina bati ekin zioten, minak egitea, erabiltzea, metatzea, salerostea eta esportatzea behingoz debekatzeko asmoz.



Egunkariko artikulu honetan oinarriturik, erantzun ondorengo galdera hauei:

Zer da mina bat?

Zergatik dira hain arriskutsuak?

Zer erosiko zenuke mina baten prezioan?

Zure ustez, zergatik jartzen dira minak?

Zergatik da hain zaila minak lurretik kentzea?

Zein da biderik onena minak baztertzeko? Zein da zure iritzia?

Goi-mendietako lurretan gaude.

Lur hauetan jende asko bizi da, eta bertan lan egiten du: baserritarrak, nekazariak, artzainak, basozainak, etab. Bertan, familia berezi bat bizi da. Lur hauetako jabea den familiak eskaintza ugari izan ditu azken garaiotan, zonaldea urbanizatu eta etxe-multzo dotoreak egin nahi baitituzte.

Eskaintza oso kilikagarria da, baina denak ez daude ados.





Egoera:

Erosle-taldeak 1.200 milioi pezeta ESKAINI ditu lurak eta Txomin Eneako Baratzea erosteko!!!!!!!!!!!!

Langile bakoitzari, 2 milioi pezeta eskaini zaizkio, beren bizimodua berregiteko moduan. Sindikatuak familiari salmenta ez errazteko eskatu die langileei, diru gutxiegia delakoan.

Egoera oso gatazkatsua da...

Salduko al da Txomin Eneako Baratzea?



Behin jokoa amaituta, erantzun ondorengo galderei:

Zein emaitza lortu dituzue? Akordiorik izan al da pertsonaia guztien artean



LUR-LANGILEAK

• BASERRITARRAK:

- 1 Joxe
- 2 Miren
- 3 Iñaki

• NEKAZARIAK:

- 4 Edurne
- 5 Jon
- 6 Mikel
- 7 Jasone

• ARTZAINA:

- 8 Imanol

• BASOZAINA:

- 9 Karmele

LUR-JABEAK

• AITONA:

- 10 Kepa

• SENAR-EMAZTEAK:

- 11 Olatz
- 12 Iker

• 2 SEME-ALABA:

- 13 Irune
- 14 Unai


EROSLEAK

- 15 Aitzol
- 16 Leire
- 17 Zorion

BEHATZAILEAK

- 5 behatzaile, egoera orokorra begiratzeko.
- behatzaile finko 1, talde bakoitzeko (langileak, familia eta erosleak).

Zein pertsonaia izan nahi duzu antzezpena egiteko?



Nola lortu da konponketa?
Denek zuzen jokatu al dute?



Sofiaren istorioan haxe ikasi dut...



Zure ustez, zer egin daiteke munduko neskato eta mutikoek Sofiak bizi izan duena bizi ez dezaten?
